

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko martxoaren 7an hartutako erabakiaren laburpena: 2025an informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta-sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariatza xede duten jarduera eta ekintzetarako dirulaguntza-deialdia egiten da horren bidez

BDNS (Identif.): 821063.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/821063>).

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko martxoaren 7an hartutako erabakiaren laburpena: 2025an informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta -sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariatza xede duten jarduera eta ekintzetarako dirulaguntza-deialdia egiten da horren bidez.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehen. Erakunde onuradunak

Deialdian elkarte, fundazio eta entitateek parte hartu ahalko dute, baldin eta honelako ekintzak egitea esanbidez jasota badaukate beren estatutuetako xedeetan: gizarte-prebentzioari eta -sustapenari loturiko ekintzak, edo desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen elkartasuna adierazteko eta laguntzeko ekimen zuzenak egitea xede dutenak.

Orobat eskuratu ahal izango dute onuradun izaera pertsona fisiko edo juridikoen elkarte publiko edo pribatuak, ondasun komunitateak, edo beste edozelako ekonomi unitate edo ondare bereizik, nortasun juridiko propiorik izan gabe ere, dirulaguntza ematea dakarten proiektu edo jarduerak elkarrekin garatu eta bideratzeko gai badira.

Dirulaguntza eskatzen duten pertsonen edo entitateen Vitoria-Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbidea, eskatzaileak udalaz gaindiko entitateak diren kasuetan izan ezik; kasu horietan, dirulaguntzaren xede diren ekimenak Vitoria-Gasteizko udalerrian egin behar dira eta udalerriko biztanleei egon behar dute zuzenduta, betiere 4. oinarrian zehaztutako kontzeptuetara egokituta. Horretaz gain, pertsona juridikoek Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean, edo Euskal Autonomia Erkidegoan dagokien erregistro publikoan, izena emanda egon behar dute, eta datuak eguneratuta eduki.

Bigarrena. Xedea

Informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta -sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariatza xede duten eta 2025an gasteiztarrei zuzentzen zaizkien jarduera eta ekintzak, Gizarte Politiken Sailaren eskumenekoak badira eta beste udal sail baten berariazko dirulaguntza-deialdi baten xede ez badira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko martxoaren 7an hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Gizarte Politiken Sailaren 2025eko ekitaldiko aurrekontuko 11.11.2301.480.45 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 125.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

Bosgarrena. Aurkezteko epea eta modua

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 7a

Gizarte Politiken Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
ROSA ANA URTARAN URTARAN